

I. ERANSKINA

EHIZA-ESPEZIEEK ERAGINDAKO KALTEEN PREBENTZIORAKO NAFARROAKO TOKI-ENTITATEENDAKO LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK (2026)

1. oinarria. Xedea

Oinarri hauen xedea da arautzea Nafarroako toki-entitateei, zehazki tokiko ehiza-barrutiak kudeatzeko ardura dutenei, emanen zaizkien laguntzak, ehiza-espezieek egiten dituzten kalteak prebenitzeko materiala erostearen ondoriozko gastuen zati bat estaltzeko.

2. oinarria. Laguntzen helburua

Laguntza hauek helburu dute ehiza-espezie batzuek nekazaritzaren edo basogintzaren eremuetan egiten dituzten kalteen arriskua gutxitzea edo murriztea, eremu horiek Nafarroako toki-entitateek zuzenean kudeatzen dituzten ehiza-barrutietan daudenean.

3. oinarria. Entitate onuradunak

Laguntza hauen onuradun izan daitezke eskaera aurkezteko unean tokiko ehiza-barrutiak kudeatzeaz arduratzen diren Nafarroako toki-entitateak, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluan onuradun izateko ezarritako debeku egoeraren batean ez egotea.
- b) Laguntzak emateko ebazpen proposamena egiten den unean, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatze aldera, interesdunari jakinarazten zaio eskabidean (II. eranskina) baimena ematen diola Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari egoera hori egiaztatzen duten datuak kontsultatzeko.

- c) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin zorrik ez izatea.

4. oinarria. Gastu diruz lagungarriak

Diruz lagungarriak izanen dira jarraian zehazten diren inbertsio mota hauengatik 2025eko urtarrilak 1 eta Urrian 31 bitartean egindako gastuak, BEZ kanpo: :

- A. Laboreak babesteko sare-hesien kostu materiala, barnean direla horiek ongi funtzionatzen dutela bermatzeko beharrezkoak diren osagai guztiak.

Metro bat altu izanen dira gutxienez, eta hogeitazentimetro lurrean sartuta egon beharko dute. Sare-hesiak, justifikatutako kasuetan izan ezik, labore iraunkorretan ezarriko dira edo balio ekonomiko handikoetan, hala nola mahastietan, olibadietan, beste fruta-arbola batzuen alorretan edo zainzuri, brokoli edo beste barazki batzuen sailetan.

- B. Babes hodian edo antzeko sistemen kostu materiala, barnean direla horiek ongi funtzionatzen dutela bermatzeko beharrezkoak diren osagai guztiak.

- C. Laboreak babesteko hesi elektrikoen kostu materiala, barnean direla horiek ongi funtzionatzen dutela bermatzeko beharrezkoak diren osagai guztiak.

Hari kopuruek eta haien arteko tarteei kasu bakoitzerako egokiak izan beharko dute, eta baterien edo korrante elektrikoaren bidez elikatuko dira, halako moduan non haren intentsitatea etxeko abereentzat erabili ohi dena halako bi izanen den.

Ez dira diruz lagungarriak izanen hesi fisikoen ezarpenetik eta mantentze-lanetik sortutako gastu eta jarduketak.

Nolanahi ere, hornitutako materialak gutxienez 5 urteko balio-bizitza izan beharko du beti, eta hori eman izana justifikatu beharko da IV. eranskinaren arabera.

Justifikatutako salbuespenetan izan ezik, ez dira diruz lagungarriak izanen aurreko bosturtekoan dirulaguntza jaso duen lurzati jakin baterako sare motako materialak eta hodi babeslea.

5. oinarria. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntzaren zenbatekoa izanen da 4. oinarrian zehaztutako inbertsio motengatik onetsitako exekuzio materialaren aurrekontuaren % 60 adinakoa (BEZa kanpo).

Nolanahi ere, dirulaguntzak emateko, behar adinako kreditua izan beharko da aurrekontuetan, eta Administrazioak baliabide ekonomikoak izan beharko ditu eskaeraren gaineko ebazpen administratiboa emateko unean.

6. oinarria. Eskaerak eta eskatutako dokumentazioa aurkezteko epea eta modua

6.1. Eskaerak aurkezteko epea.

Eskaerak 30 egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuari zuzenduko zaizkio.

6.2. Eskaerak aurkezteko modua.

Eskaerak elektronikoki izapidetuko dira. Nafarroako Gobernuaren atariko administrazio publikoendako zerbitzu-katalogoan argitaratutako deialdiaren fitxan sartu beharko da : <https://tramitespersonal.navarra.es/eu/tramiteak/bilatzailea>

6.3. Eskatzen den dokumentazioa.

- II. eranskina - Eskabidea, datuak kontsultatzeko baimena eta erantzukizunpeko adierazpena dituen.
- III. eranskina- Eskatutako inbertsioen zerrenda, barne direla babeserako bitartekoak zer lurzatitan jartzea proposatzen den, horien xehetasunak.
- Entitate eskatzaileak, laguntzak lehen aldiz jaso behar baditu edo horiek abonatzeko kontua aldatu nahi badu, kontua erregistratu beharko du Nafarroako Gobernuaren tramiteen katalogoko “Banku-kontuak jakinaraztea, Foru Administrazioaren ordainketak jasotzeko” fitxan: <https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/kontuen-eta-ordainketen-konsulta>.

Eskaera eta harekin batera aurkeztutako dokumentazioa jaso ondoan, egiaztatuko da oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen diren edo ez. Ez badira betetzen, eskaera 10 eguneko epean zuzentzeko eskatuko zaio, eta adieraziko zaio ezen, zuzendu ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta espedientea artxibatzeko ebazpena emanen dela.

7. oinarria. Dirulaguntza emateko balorazio-irizpideak.

Laguntza emateko prozedura norgehiagokako araubideari jarraikiz egiten da.

Eskabideen lehentasun-ordena honako irizpide hauen arabera ezarriko da:

Atala	Kontzeptua	Puntuazioa
1	Ehiza-barrutia edo haren zati bat kalteen prebentziorako plan batean sartu duten toki-entitateak.	20
2	Azken 3 urtean baimen bereziak eta/edo erantzukizunpeko adierazpenak eskatu dituzten toki-entitateak, basurdeek eta/edo untxiek eragindako kalteak kontrolatzeko, kalteen prebentziorako planik izan gabe.	10

Eskaerei emandako puntuazioan berdinketarik egonez gero, irizpide hauek aplikatuko dira, hurrenez hurren, berdinketa hausteko: lehendabizi, zeinek duen lanak gauzatzeko aurrekontu onartu handiena A neurrietarako; bigarrenik, zeinek duen lanak gauzatzeko aurrekontu onartu handiena B neurrietarako, eta, bukatzeko, zeinek duen lanak gauzatzeko aurrekontu onartu handiena neurri guztietarako.

Lehentasun-hurrenkeraren arabera esleituko da dagoen aurrekontua, aurrekontuko partida agortu arte.

8. oinarria. Instrukzio-organoa.

Deialdi honetan ezarritako laguntzak emateko prozeduretan, instrukzioa Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuari dagokio.

9. oinarria. Dirulaguntza emateko prozeduraren instrukzioa

9.1. Eskaerak ofizioz ebaluatuko dira norgehiagokako prozeduraren arabera eta oinarri arautzaile hauetan ezarritako balorazio-irizpide eta -moduen arabera.

Aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren, proposatuko da dirulaguntza ematea, edo, deialdi honen oinarrietan ezarritakoarekin bat ez datozen eskaeren kasuan, dirulaguntza ukatzea.

9.2. Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuak, espedienteak ikusita eta aurrekontuan dagoen zenbatekoaren arabera, ebazpena emateko proposamen-txostena egingen du, Ehiza Kudeaketarako Atalaren bitartez, eta Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari igorriko dio. Proposamen horren bidez, laguntza emateko espedienteetan jaso beharko da onuradunak betetzen dituela laguntza eskuratzeko behar diren baldintza guztiak.

9.3. Proposatutako laguntzen zenbateko osoa deialdi honetarako aurrekontu partidan erabilgarri dagoen zenbatekoa baino txikiagoa bada, laguntzaren zenbatekoa % 65eraino handitzen ahalko da.

10. oinarria. Laguntza emateko ebazpena

Ebazpen-proposamena ikusirik, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak dirulaguntzak emateari buruzko ebazpena emanen du.

Ebazpena arrazoitua izanen da, haren oinarriak frogaturik egonen dira beti.

Ebazpenean, dirulaguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda jasoko da, eta adieraziko da zer puntuazio eman zaion eskatzaile bakoitzari, 7. oinarrian ezarritako balorazio-irizpideen arabera. Halaber, berariaz adieraziko da gainerako eskabideak ezetsi direla, halakorik bada.

Deialdia ixten den egunetik hiru hilabeteko epean jakinaraziko da ebazpena, eta honako hauek jasoko ditu: esleitutako dirulaguntzaren zenbatekoa justifikatzeko nahikoa den informazioa, eta onuradunak bete behar dituen baldintzak eta konpromisoak.

Eskaera ezetsi egin dela ulertuko da, baldin eta ez bada berariazko ebazpenik eman oinarri arautzaile hauetan dirulaguntzaren prozedura ebazteko ezarritako epea igarotakoan.

11. oinarria. Eskaerak aldatzea

Oro har, ez da aldaketarik onartuko aurkeztutako eskabideetan.

Edozein aldaketa justifikatu eta eskatu egin beharko zaio Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuari, 2026eko irailaren 1a baino lehen.

12. oinarria. Egindako gastuen eta ordainketen justifikazioa

Gastuen eta ordainketen frogagiriak entregatzeko azken eguna **2026eko azaroak 9a**, izanen da, egun hori barne.

Ahal dela, dokumentazioa PDF formatuan aurkeztuko da, eta JPG fitxategiak saihestuko dira.

Frogagiriak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Erregistro Orokor Elektronikoa aurkeztuko dira (<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/Erregistro-Orokor-Elektronikoa>), edo beste administrazio publiko batzuetako erregistroetan, baldin eta aipatutako erregistroarekin elkarrengarriak badira, eta Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuari zuzenduko zaizkio.

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Hornitzailearen eta toki-entitatearen datu fiskalak dituzten gastuen fakturak, onuradunaren izenean egindakoak.
- Bankuko ordainagiriak, eta zenbatekoak bat etorri beharko du dagokion fakturarekin.

Agiriak jatorrizkoak edo kopiak izaten ahalko dira.

- IV. eranskina- Egindako inbertsioak. Kasuan kasuko laukiak beteko dira babes materialaren xedeko lurzatien zerrendarekin, babesaren xedeko laboreak adierazita, eta materialen hartzaileen sinadura jaso beharko da, artzain elektrikoaren kasuan izan ezik.

13. oinarria. Dirulaguntzaren ordainketa

Instrukzio-organoak behar diren kontrolak eginen ditu, egiaztatzeko betetzen direla deialdi honen oinarriak. Kontrol horiek egiteko, Foru Administrazioan edo beste administrazio batzuetan dauden erregistro ofizialak edo eskura dauden bestelako informazio-iturriak erabiliko ditu, betiere laguntza ordaintzeko unean dagoen informazioaren arabera.

Ez da onartuko hasiera batean baimendutako aurrekontuari gehikuntzak egitea.

Egiaztagiriak aztertutik, Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuak ordaintzeko ebazpenaren proposamena igorriko dio Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari, eta, horrekin batera, txosten bat, frogatzen duena entitate onuradunek bete dituztela dirulaguntza kobratzeko eskubidea sortzen duten betebeharrak.

Ordainketa bakarrean pagatuko da dirulaguntza.

14. oinarria. Onuradunen betebeharrak, murrizketak eta ordainketa ez gauzatzeko arrazoiak.

Entitate onuradunek Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 9. artikuluan ezarritako betebeharrak orokorrak bete beharko dituzte.

Deialdi honetan diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko lortutako beste dirulaguntza edo laguntza batzuen berri eman beharko zaio organo emaileari.

Dirulaguntza emateko ebazpenetan, oinarri arautzaile hauetan edo Dirulaguntzei buruzko Foru Legean ezarritako betebeharren bat ez bada betetzen, esleitutako dirulaguntza kobratzeko eskubidea galduko da, eta, hala behar bada, diru hori itzuli egin beharko da, foru lege horren 35. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Halaber, aurreko betebeharretakoa bat hein batean betetzen ez bada, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa doitzen ahalko da proportzionaltasun printzipioari jarraikiz, edo, zein den kasua, dagokion zenbatekoa itzuli beharko da.

15. oinarria. Dirulaguntzaren bateragarritasuna edo bateraezintasuna.

Deialdi honen dirulaguntzak bateragarriak dira Foru Komunitateko Administrazioak, beste administrazio publiko batzuek, beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuek edo partikularrek, Espainiakoak nahiz nazioartekoak izan, emandako beste laguntza batzuekin.

Kasu horretan, jarduera bererako emandako dirulaguntzen zenbatekoak, bakarrik edo denak baturik, ezin izanen du gainditu onuradunak egin beharreko jardueraren kostua.

16. oinarria. Emandako dirulaguntzen publizitatea

Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 15. artikuluan xedatutakoarekin bat, Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuak jendaurrean jarriko ditu emandako dirulaguntzak, Nafarroako Gobernuaren Interneteko atarian (<https://www.navarra.es/eu/hasiera>), honako hauek zehaztuta: deialdia, laguntza zein programari eta aurrekontu kredituri egozten zaien, onuraduna, emandako diru kopurua eta dirulaguntzaren helburua.

Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 15.2 artikuluari jarraikiz, onuradunek, publizitate egokiaren bidez, aditzera eman behar dute dirulaguntzaren xede diren programek, jarduerak, inbertsioek eta edozein motatako ekintzek finantzaketa publikoa dutela.